

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2.313 positibo guztira*

1.483 hildako EAEn
(3 gehiago)

*Hernanin 55, Astigarragan 20

NAFARROAN

116 positibo berri
504 hildako

8.565 positibo guztira

Sendatuak: EAE 16.965

«Deia egiten dugu benetako egitasmoak abian jartzeko, Urumeako bailaren kontserbaziorako»

Biodibertsitatearen Nazioarteko Egunean, Urumea bailaran «eukalipto landaketa gehiago ez egitea» eskatu dute hiru biologo eta ikertzailek: Iñaki Sanz-Azkue hernaniarrak, Joserra Diezek eta Ibai Olariagak.

URUMEA NATURA

Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna da gaur, eta horren harira, bere «ardura eta ezinegona» adierazi nahi izan dute, hiru biologo eta ikertzailek: Iñaki Sanz-Azkue hernaniarrak, Ibai Olariagak eta Joserra Diezek.

Kezka horren arrazoia dira, «azkeneko urteotan eta, batez ere, azken hilabeteotan, Urumea bailaran hainbat lurjabe egiten ari diren eukalipto landaketak, erakunde publikoen baimenarekin». Azaldu dute, Urumeako zenbait bailaratan (Usoko errekan, Kartola edo Olaberri bailaran, Sagarretan...), gero eta ugariagoak direla eukalipto landaketak; eta horrek «inpaktu berreskurazinak» eragin ditzakeela «bertako biodibertsitatean, bailarako ekosistema ezberdinetan, Urumea ibaiaren eta erreken hidrodinamikan, zein bertako faunan eta floran».

«Biodibertsitate aldetik, garrantzia haundiko bailarak dira eukalipto landaketak jaso dituztenak»

Hainbat ikerketa egin dituzte bertan hiruek, 2007tik gaur arte; eta nabarmendu dute, «biodibertsitate aldetik garrantzia haundiko bailarak» direla, eukalipto landaketak jaso dituztenak: «bailaren litologiak, kokapenak eta malkartasunak baldintza bereziak sortzen ditu, eta horrek espezie mehatxatu ugariaren bizitoki bihurtu ditu».

Horrela, esaterako, sei landare mehatxatuen 112 nukleo daude: «horien artean, *Soldanella villosa*, mundu mailan Euskal Herrian bakarrik aurkitu daite-

keena; eta *Hymenophyllum tunbrigense*, *Vandenboschia speciosa* eta *Dryopteris aemula* iratzte paleotropikal babestuen populazioak. Banaketa isolatua duen *Veratrum album* espeziea, eta desagertzeko arriskuan dagoen *Prunus lusitanica* jatorri paleotropikaleko arbolaren aleak ere badira bertan».

Diote, gainera, bailara hauek «oso garrantzitsuak» direla espezie horien kontserbaziorako. Batzuen kasuan, Euskal Herriko kopuruaren %30a baino gehiago zegoen Urumeako bailaretan, eta Europa mailako populazioen genetikari buruzko ikerketa baten parte dira bertako *Vandenboschia speciosa* nukleoak.

Gune babestuetatik kanpo daude gehienak, eta «baso ustiaketa mota batzuk, arriskutsuak izan daitezke, landare babestu horien biziraupenerako».

Mikologia eta likenologia aldetik ere, hainbat espezie berezi aurkitu izan dituztela azaldu dute: «horietako asko, mehatxatuta daudenak». Eta faunari dagokionez, 10 urtetan zehar egin dute azterketa herpetologikoa bertan: «15 espezie aurkitu ditugu bertan, eta horietatik zazpi dute Europa mailako babes. Baina Aranzadi Zientzia Elkarrekin bertako aleekin egindako ikerketek, garbi adierazi dute eukalipto landaketek eragin zuzena dutela horien osasunean eta biziraupenean».

«Urumea bailaran eukalipto landaketa gehiago ez egitea eskatzen dugu»

Hiru biologo eta ikertzaileek aurreikusi dute, «bailaren potentzialtasuna ikusita», babestutako



Biologo eta ikertzaileetako bat, Azketako errekan datuak hartzen. Argazkia: Iñaki Sanz-Azkue

beste hainbat espezieren bizileku ere izan daitezkeela. Eta era berean, «korridore natural» moduan jokatzeko dute, babestuta dauden hiru eremuren artean (Leitzarain, Urumea eta Aiako Harria), «euren arteko konektibitatea ahalbidetuz».

Gauzak horrela, ezaugarri horiek eta bertan ematen ari diren baso kudeaketak kontutan hartuta, hainbat eskaera luzatu dituzte: «Urumea bailaran eukalipto landaketa gehiago ez egitea; dagoeneko egin diren eukalipto landaketen artean korridore naturalak sortzea; landaketak egin diren eremuetan, errekatik 100 metroko distantzian bertako basoa mantentzea edo errestauratzea, bisoiaren eta muturluzearen kudeaketa planek adierazten duten bezala; basogintza plan egituratu eta antolatua izatea arro mailan, bertako ekosistemen eta espezieen kontserbazioa kontuan izanda; bertako erreken eta espezie babestuen jarraipena egitea, ikerketa sustatuz, egin diren landaketek biodibertsitatean izan dezaketen eragina neur-

tzeko; egiten diren basogintza lanek neurri zorrotzak betetzea eta jarraipena egitea; bailara hauei babes-maila haundiagoa ematea, aurretik planteatu izan diren mikroerreserba sare, Parke Natural eta Kontserbazio Bereziko Eremu bilakatuak; eta erakundeen eta ikertzaileen arteko koordinazioa».

Uraren zein lurzorua kontserbazioan eta uholde arriskuan, «eragin zuzena»

Hiru zientzialariek diote, bailaren kudeaketak «eragin zuzena» duela, baita ere, «uraren zein lurzorua kontserbazioan, eta uholde arriskuaren kudeaketan: «aldaketa klimatikoaren ondorioak are larriagoak izango dira hazkuntza azkarreko landaketak nagusitzen diren heinean. Horrez gain, Urumeako arroan uholdeen maiztasuna eta eragindako kalteak haundituz doaz azken hamarkadetan. Basoak soiltzeak, magalak pistaz jostek, lur mugimenduak eragiteak eta lurzorua trinkotzeak kalte konponezinak dakartzta, inolako zalantzarik gabe». Eta uste dute,

«legeak eta arauak badiren arren», ez direla nahikoa «gure ondarea babesteko».

Nabarmendu dute, «berebiziko garrantzia» duela, iturburuak eta bere arteriak egoera onean mantentzeko: «are gehiago garai hauetan, ikerketa guztiek adierazten dutenean biodibertsitatearen kontserbazioak erabateko lotura duela gure osasunarekin eta datozten belaunaldi utziko diegun ondarearekin. COVID-19ak eragindako pandemia, ezin aukera aproposagoa da hausnarketarako».

Hori horrela, deia egin dute, «benetako egitasmoak abian jartzeko lehenbailehen, Urumeako bailaren benetako kontserbaziorako. Ubideak eta ibaiertzetako landaredia kontserbatzea hil ala biziko neurria da, mehatxupean dauden espezieentzat zein guretzat; beraz, hor dugu lehentasuna. Lursailak erosi, zaintzan hartu edota landaketez inguratutako errekaetako errestauratzea. Horixe da gure erronka, eta egitasmo honetarako erakunde, elkarte eta pertsona ezberdinen atxikimendua eskatzen dugu. **K**

ALAI A

ODONTOLOGIA ZENTROA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astelehenerdik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA	ODONTOPEDIATRIA
HORTZ ESTETIKA	ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
AHO KIRURGIA	TELERADIOGRAFIK
INPLANTEAK	3D SCANNERRA
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA	AHO BARRUKO SCANNERRA
PERIODONTZIA	KIRURJIA NABEGATUA
ORTHOAPNEA	ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlagi poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

GAUR Giro ederrarekin hasiko dugu eguna, zerua ia urdin dagoela; baina lainotuz joango da gero, eguerditik aurrera. Iparraldeko haizearekin, kostaldetik sartuko dira lainoak, eta hegoaldera zabalduko dira pixkanaka. **Min.15° / Max.23°**

BIHAR Giro ilunarekin hasiko dugu biharko eguna, eta euri pixka bat ere egingo du, tarteka. Arratsaldean argitzera egingo du pixkanaka, eta atertuz joango da. Haizea iparraldetik ibiliko da, eta behera egingo du tenperaturak. **Min.14° / Max.19°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Aske geratu da Asier Ezeiza 'Xaxi' preso hernaniarra

Atzo eguerdiko 14:30etan jaso zuen askatasun autoa, Frantziako espetxealdia bukatuta, Espainiak absolbitu egin baitzuen, otsailean.

HERNANI PRESOK

Aske geratu zen, atzo eguerdian, Asier Ezeiza Ayerra Xaxi preso hernaniarra. 14:30ak aldera jaso zuen askatasun autoa, eta horrekin, Arabako Zaballako espetxetik atera zen atzo.

Frantzian kondena bete ondoren, Madrilgo Soto del Realeko espetxera eraman zuten otsaila hasieran, eta hilabete horren bukaeran epaitu zuten, Espainiako Auzitegi Nazionalan.

Kausa horretatik absolbitu zuen epaitegiak, oraindik beste kausa bat zintzilik badu ere; eta berriro Frantziara eramatekoak ziren.

Baina Koronabirusaren eraginez ezarritako alarma egoera tarteko, Zaballako espetxean eduki dute, orain arte.

Frantziako estatuak adierazi du kondena beteta daukela han, eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren absoluzioa aintzat hartuta, libre geratu zen atzo, askatasun autoa jasota. **K**



'Xaxi', atzo espetxetik atera berritan.

«Izugarrizko arduragabekeria iruditzen zaigu, klasera bueltatzea»

Mandazubi Guraso Elkarteak bere kezka eta zalantzak eman ditu aditzera, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzan erakutsitako asmoen inguruan.

HERNANI HEZKUNTZA

Eusko Jaurlaritzak bere erabakia berriro aldatzen ez badu, datorren astelehenean hasiko dira ikasleak klaseetara bueltatzen, DBH 4, Batxilergoa eta Lanbide Heziketakoekin hasita. Joan den astelehenerako zegoen aurreikusita, baina astebete atzeratu zuten orduan.

Jaurlaritzak erakutsitako asmoekin kritiko azaldu da Mandazubi Guraso Elkarteak, Hernani BHI Institutuko gurasoena. Eta bere kezka eta zalantzak eman ditu aditzera, idatzi baten bidez.

«Orain arte garbi ikusi da, ikastetxe bakoitza aurrera atera dela bere kabuz eta inolako baliabide, jarraibide eta sostengurik gabe, ez ekonomikoa eta ez pedagogikoa, Eusko Jaurlaritzaren erabakiekin aurre hartuz uneoro. Gure seme-alabei, ahal zuten laguntzarik onena, modurik egokienean eskaintzen, erabateko ziurgabetasun egoeran. Ahalegin itzela egin dugu guztiok, zuzendaritza taldeak, irakasle, ikasle eta familiok, bakoitzak bere eremutik eta bere gaitasun eta gabeziak», nabarmendu dute.

Horregatik agertu dira hase-re, Cristina Uriarte Hezkuntza Kontseilariaren adierazpenekin,

«esanez eskolara bueltatzeko ordua dela jada, eta entsaio bat egingo dugula irailera begira, normaltasuna jada gure artean egongo balitz bezala».

«Ezin da bermatu eskolara bueltaren antolaketa, modu egoki eta zentzuzko batean» Zentzu horretan, Mandazubik kritikatu du, Hezkuntza Sailak eskolak ireki nahi dituela, «baina guztion segurtasuna bermatzeko ardura zuzendaritza taldearen, irakasle, langile, ikasle eta familien esku utzita. Horrelako ardura, eskola bakoitzaren gaitasunetatik kanpo dago, ezin baita bermatu guzti horren antolaketa modu egoki eta zentzuzko batean», adierazi du.

Gauzak horrela, Guraso Elkarteak uste du, «segurtasuna bermatu beharrean, zalantzak eta kezka areagotu» egiten dituela Hezkuntzaren proposamenak. Eta hain justu, bere kezka eta zalantzen zerrenda zabaldu du, idatziaren bitartez.

Horrela, galdetu du Hezkuntza Sailak ba ote daukan Planik itzulerarako, eta zuzendaritza taldeekin adostu ote den; zein babes neurri bermatuko dituzten; testak edo tenperatura kontrolak egingo ote diren; zein babes material erabiliko den; nola

bermatuko den desinfekzioa, edo ikas materiala ez konpartitzea...

«Egin ditzagun gauzak zentzuz eta arduraz, eta lagundu diezaiegun irakasleei»

Mandazubik azaldu du, «nahikoa lan» izango dela, datorren ikasturterako ikasketa planak berrantolatzen, «orain aurrez aurre egin ezin izan diren funtsezko edukiak berreskuratzeko, edota ikasturtea bera antolatzeko, goitik behera aldatu beharko delako agian».

Ikastetxera bueltatzeko erabakia ikastetxeen edota gurasoen esku uzteko proposamena ere gogor kritikatu du: «gure seme-alabentzat kalitatezko hezkuntza nahi dugu, pedagogia eta osasun baldintza minimoak bermatuz. Baldintza horiek bermatu bitartean, izugarriko arduragabekeria iruditzen zaigu, inolako aurreikuspenik, baliabiderik eta adostasunik gabe, klasera bueltatzea».

Eta gaineratu du: «egin ditzagun gauzak zentzuz eta arduraz. Lagundu diezaiegun irakasleei euren jarduna ondo bukatzen ikasturte honetan. Bukatu klaseak maiatza bukaeran, dena gainditu duten ikasleentzat. Zentratu ekainean errefortzua behar dutenekin, laguntza eskainiz ohiko eta ezohiko azterketei begira, selektibitateari begira; eta betiere, ikasle guztiek bere maila gainditu dezaten ahalik eta baldintza onenetan». **K**



Arantza Iglesias dantzaria. 'katapulta.org' web orriko bideo bateko irudia.

Arantza Iglesiasen dantza saioa, gaurkoan

Bideo-proiektzioak eta dantza uztartzen dituen lana erakutsiko du hernaniarrak, Jokin Labaienekin elkarlanean.

HERNANI KULTURA

Dantza izango da protagonista, gaurkoan, Hernani Kultura online programazioan. Arratsaldeko 19:30etan hasita, dantza eta bideo proiektzioak uztartzen dituen pieza erakutsiko du Arantza Iglesias Arbizu dantzari hernaniarrak, Jokin Labaienekin elkarlanean.

Bideo-dantza deitu diote, eskainiko duten lanari, eta ikus-

gai izango da Hernaniko Udalen Youtubeko kanalean. Lotura zuzena aurkitu daiteke Udalaren web orrian (hernani.eus), edota kronika.eus web orrian, albiste honekin batera.

Emanaldi honekin emango diote bukaera, online programazioaren hirugarren asteari. Eta datorrenean, maiatzeko azkeneko astean, beste bi emanaldi daude aurreikusita, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean horiek ere. Asteazkenean, arratsaldeko 18:00etan hasita, poesia saioa eskainiko du Andoni Tolosa Morauk: *Nire oinen atzetik*. Eta ostiralean, 19:30etan hasita, Xabi Solano musikariaren emanaldi labur bat ikusteko aukera izango da, bertan. **K**

Jolaserako zita gaur, eta sukaldari lanetan bihar

Txanpinoiak saltsan prestatzen ikasiko dute bihar nerabeek, Astigarragako Gaztelekuarekin.

ASTIGARRAGA-HERNANI GAZTELEKUA

Egunero ari dira Astigarragako eta Hernaniko Gaztelekuko hezitzaileak, hutsik egin gabe, gazte eta nerabeentzako ekin-tzak antolatzen, sare sozialak erabilia.

Gaurko eguna, jolaserako baliatuko dute, batean zein beste-an. Astigarragan, irudiekin jola-

sean ariko dira. Eta Hernanin, *Black stories* jolasa aukeratu dute: Jitsi Meet aplikazioaren bitartez elkartuko dira, 18:00etan sartu eta *hgaztelekua* jarrita.

Bihar, berriz, sukaldari lanetan ariko dira astigarrarrak. Izan ere, *Gazterrezetarekin* daukate hitzordua, eta txanpinoiak saltsan prestatzen ikasiko dute. Hernaniko Gaztelekuak, berriz, kirola izango du hizpide: kirolen inguruko galdetegi jarriko dute Instragrameko historian, arratsaldeko 18:00etan; eta galdera guztiak zuzen erantzuten dituzten artean, baloi bat zozketatuko dute. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial batean. Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketa aritua izatea baloratuko da. Arduratsua. Hasiera data: 2020/06/01. **Deitu: 687 756 360**

Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrek emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua).**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**